



"Animatu Euskaraldian parte hartzera!"

Andrea naiz eta Errumaniakoa naiz, zehazki Transilvaniakoa. Bederatzi urte daramatzat Espainia Estatuan, eta Euskal Herrian bost eta erdi.

Duela bi urte hasi nintzen euskara ikasten, Euskaltegi batera joaten nintzen. Hasieran, zaila iruditu zitzaidan, egia esan, euskara zaila da, baina, gogoia jarritz, dena lor daiteke.

Denboraz, praktikatzen hasi nintzen, liburutegian, lagun batekin, dendetan...

Denek esaten zidaten: *"Seguru zuretzat ez dela zaila, zuk hizkuntza asko dakizkizulako, zehazki lau"*. Baina, denak hizkuntza latindarrak dira, eta euskara, ez dator latinetik.

Hasieran, ezinezko misioa dirudi, baina gero ez.

Nire ustez, Euskaltegiarekin ez da nahikoa. Zerbait gehiago egin behar dugu. Telebista eta irratia entzuten hasi nintzen, baina, egia esan, eskaintza nahikoa ez dago, nire ustez.

Egun batean, euskaltegian bisita bat izan genuen eta Bagerako informazioa jaso genuen Euskaraldiari buruz. Eta sinestezina iruditu zitzaidan.

*Bi aukera daude: "belarriprest" eta "ahobizi".*

*Ahobizi: ulertzen duenari euskaraz egiten diot. Hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten diet.*

*Belarriprest: egidazu euskaraz, nik erdaraz zein euskaraz erantzungo dizut.*

Nik belarriprest aukeratu nuen.

Aukera honekin, espero dut, euskaraz entzuteko ohitura hartzea, eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posiblea dela frogatzea.

Nire ustez, hemen bizitzea aukeratzen duenak, egokitzen saiatu behar izango luke, kultura hori besarkatzea, horren parte sentitzea, hura maite izaten hastea.

Ukatu behar izan gabe bakoitzaren jatorria.

Bestela, antzeko sentimendua aurkitzen dugu, hausnarketa bat egin beharko genuke.

Eta pixka bat hitz egiten duenak, frogatzea animatzen dut. Hitz egitea.

Euskara hizkuntza zoragarria da.

Andrea Mahalean, 'belarriprest' 2018-11-30